

## EDITORIAL

Bildu beharko

Abertzaleak bat gatoz nazio bat garela aldarrakatzerakoan eta horren baitan herri gisako nortasuna mantentzeko borondate politikoari eutsi egiten diogu. Bat gatoz ere –eta pozten gara– gure ingurune europarrean hainbat herrialdekin burujabetasuna lortzeko erakutsi duten grina. Horietako batzuk ondo lortua dute dagonekoz. Zenbait gorabeherekin bada, Kosovo izan da zerrenda zabal horretan sartu den azkena. Agudo agertu da espiñiar ordezkaria nazio horren burujabetza aitorpena ez onartzeko.

Ukaezina da bizi dugun testuinguruaren frantziar eta espiñiar estatuak oldartu direla abertzalesuna garatzeko zantzu txikiak ere agertu direnean. Oinarri demokratiko txikiena duen jarreraren arrastorik ez dago. Guztiz alderantziz. Jazarpena, atxiloketak, legez kanporatzeak eta oro har eskubideen urraketa nagusitu da nonahi. Ez gaitu harritzen, zoritzarrez, ibilbide honetan estatuek garatu duten estrategia bortitzak. Hain banandurik, hain sakabanaturik sumatzen gaituzten horiek gure arteko urratu eta pitzadurak areagotzen ondotxo dakite. Ohituak gaude eta gauza jakina da.

Ulertu eta zintzo jokatu nahi duenak badaki ordea arazoa gurea dela, gure arteko desadostasuna eta konponezianagatik datorrela. Estrategia armatua abertzale arteko elkarlana era-gozten du, eraikuntza nazionalak behar dituen gizartea, indar metaketa, ilusioa eta militantzia bezalako baloreak zapuztua. Bestalde, ibilbide politikorik ez duen proposamenez jendartea entreteni nahi izatea ez da zilegi jokatzea. Ez eta gutxiagorik ere. Eta zurrumbilo itogarri honetan murgildurik beste Aberri Eguna bat ospatzera goaz.

Aberria eraikitzeko abertzaleok behar dugun batasuna gertuen ikusi dugun garaia eta esangura Lizarra-Garaziko jarduera politikoan bizi ahal izan genuen. Egun ere abertzaleak biltzea, norberaren nortasuna salbu, beste erremediorik ez dugu baldin eta nazio bat izateko aldarrikapena hitz hutsetan geratzea nahi ez budugu.

### ELA denuncia al Gobierno Vasco ante la Confederación Europea de Sindicatos por vulnerar la libertad sindical

# ATAQUE INADMISIBLE

La Confederación Europea de Sindicatos (CES) recibió el pasado 4 de marzo una información detallada de la política antisindical y de vulneración del derecho a la libertad sindical del Gobierno vasco. Laura González de Txabarri, responsable del área internacional de ELA, denunció ante la CES la "posición inquisitorial y antisindical del ejecutivo vasco, que ha puesto al servicio de las grandes empresas del comercio su propio aparato burocrático administrativo".

En concreto, el Servicio Vasco de la Competencia ha solicitado a los sindicatos una información detallada, que incluye documentos sobre debates internos, todo aquello que tenga relación con su postura contraria a la apertura de los comercios en festivos y domingos, con el único objeto de coaccionar la actividad sindical. No faltan en su carta referencias a posibles sanciones millonarias, en el caso de que se haga caso omiso a su solicitud.

En opinión de ELA, estamos ante una actuación impropia de un Gobierno democrático. Desconoce y se burla de la existencia de derechos fundamentales que deberían ser tutelados, también, por la propia Administración Pública. Se solicitan informaciones relativas a los últimos cuatro años de los debates internos dentro del sindicato, de actas del sindicato, de reuniones celebradas, de acciones sindicales que hemos desarrollado, etc... Todo ello, en relación a la posición sindical sobre la apertura de comercios en domingos y festivos. Debemos entender, porque no se dice en el documento, que lo que se solicita es en relación a la defensa sindical que ELA ha protagonizado en favor de que los y las trabajadoras del comercio guarden fiesta los domingos y festivos.

En esta estrategia, el Gobierno pone a disposición de las "difusas e interesadas reglas de la Competencia y del mercado", interpretadas de la manera más reaccionaria posible, los órganos administrativos que el propio Gobierno crea. Con una actuación administrativa que definen como no recurrible por considerarla un acto de trámite, toma partido en defensa de los intereses de las Grandes Superficies –despreciando, entre otros, al pequeño comercio-, todo ello con el propósito



de disciplinar y amedrentar al movimiento sindical.

Para ELA, es una posición inquisitorial contra los sindicatos la que protagoniza el Gobierno Vasco. Y todo ello para defender a empresas que tienen como objetivo la extensión del consumo más desenfrenado, la desaparición del pequeño comercio y la acumulación de grandes beneficios.

Una posición que contrasta con la función principal de un sindicato es intervenir en el mercado para que, mediante su acción reivindicativa, impida atropellos y procure elementos de equilibrio en beneficio de los trabajadores y trabajadoras. Todo ello en un mercado en el que de forma cada vez más dura una patronal superprotegida por el poder político, provoca innumerables injusticias.

"Desde ese punto de vista cualquier actuación de un sindicato para favorecer que los trabajadores y trabajadoras del comercio guarden fiesta los festivos y domingos puede ser considerada como una acción contra las reglas de la competencia. Considerar eso así es una absoluta barbaridad propia de personas que han perdido la medida del equilibrio en el uso de los cargos públicos que desempeñan".

*Jaurlaritzaren jarrera harriarri hau ondorio larriak dakartzan jauntxokeria bat izan da; askatasun sindikalaren funsezko eskubidea urratu dute*

*Jaurlaritzak inkisizio-moduan jokatu du sindikatuekin, eta administrazioko antolakuntza burokratikoa merkataritzako enpresa handien esanetara jarri du*

*Mugarik gabeko kontsumoa eta etekinak barra-barra metatzea helburu duten enpresak zaindu nahi dituzte, eta denda txikiak estalperik gabe utzi*

**Adolfo Muñoz 'Txiki,' idazkari nagusiaren albokoa, 2008ko Aberri Egunaren atarian**

# "EZINBESTEKOA DA INDARRAK BILTZA"



**Aberri Eguna dela eta ELAk nazio-prozesuari buruzko hausnarketa egin du. Adolfo Muñoz, idazkari nagusiaren albokoa, ELAREN planteamenduaz eta sindikatu honek nazio eraikuntzan egiten duen ekarpenaz mintzo da. Gainera, ELAkko militante guztiei gonbitea luzatzen die nazio eta klase-konpromisoari eutsi diezaiotene.**

**-Zer adierazi nahi du ELAK 2008ko Aberri Egunean?**

-Egun honek hainbat gauza adierazten du: borondate politiko bat –Zazpiak Bat–, baita herri nortasunari eusteko eta gure garapenerako tresnak askatasunetxez geureganatzeko nahia ere. Borondate horretan bat gatoz Europa-ko beste herri batzuekin; hauetako zenbait burujabetza lortzen ari dira: azken urteetan 18k independentzia lortu dute. Hor dago, esaterako, berriki Kosovon gertatu dena. Estatu berri horien artean dagoeneko sei Europar Batasunean daude, eta beste batzuk, Eskozia kasu, epe ez oso luze baten buruan lor lezakete.

Borondate hori gure kasuan bi estatuak oztapatzen dute, eta horrexegatik borondate hori gauzatzea posible egin

lezakeen batasunerako eta oinarrizko adostasunerako deiadur bihurtzen da Aberri Eguna. Adostasunak ez luke burujabetzaren aldeko erakunde desberdin nortasuna lausotu behar; asmoa beste bat litzateke, erakunde anitz horiek batu ahal dituena posible egitea: gure herriarentzako aurrerabide eta askatasunezko etorkizuna. Beraz, erakunde bakoitzaren oinarri militanteei ilusioa eman diezaikeen adostasuna.

Gaurko egoera mugimendu aberzalearen oinarriak garrik gabe daudela ikusten dugu. ELAk, dagokion heinean, sentipen hori eragin izanaren ardura ere onartzen du. Gure ustez horren zerzagia batasunik eza da, eta horrek berarekin dakarren ahulezia. Honen adierazgaririk argiena, espainiar eta frantses estatuek joera zentralizatzaile, antidemokratiko eta errepresiboak nola areagotzen dituzten.

**-Azken urte honetan ugariak izan dira Frantziatik eta Espainiatik Euskal Herriaren kontrako erasoak.**

-EAeko zerga-sistemari egindako erasoa, Nafarroako gobernu-itun antieuskalduna edota Laborantza Ganbararen moduko ekimenen aurkako oldar administratibo eta penalra dira estatu horien joera zentralizatzaile, jakobinoaren isla batzuk. Baino ez hori bakarrik. Botereen banaketa ere desagertu egin da; hauetk estatu-kontentsuaren funtio bihurtu dira. Komunikabide eta politikariak inoiz ikusi gabeko moduan auziperatzen dituzte... Zerrendak eta alderdiak ilegalizatzen dituzte eta burujagiak espetxeratu, horrela milaka herritarren parte hartze politikorako eskubideak urratzen dituztelako... Gizarte eta kulturako militanteek ere talde armatuko kide edo lankide direlako akusazioa eta kondena jasaten dute... Publizitatea bilatzea beste motiborik gabe atxilotzen dute jendea...

**Este año van a cumplirse diez desde la Declaración de Lizarra-Garazi; ELA tiene la convicción de que aquella es la única referencia estratégica capaz de concitar todavía hoy la ilusión de la mayoría**

Bake-prozesuaren aurkako jarrera agertu dute espainiar sektore zabalek, baita elkarritzeten porrotaren ostean etorri zen errerespo oldea ere, gobernu espainiarak eta frantsesak gidatu eta ehunka atxilotze, inkomunikazio eta tortura kasu ekarri dituena. Horrek guztik, beste jokabide askorekin batera, adierazten du berme politiko eta judizialen erregimena ez dagoela behar bezala finkatuta. Joera totalitario hauek mundu abertzalean hausnarketa azkartzea eragin beharko lukete.

**-Iragan Aberri Egunetik hona gauza batzuk aldatu dira. ETAK, esaterako, su-etena haustea erabaki zuen ekainean.**

-ETAK su-etena hausteko hartu zuen erabakiak bizikidetza hondatzen du eta nazio-prozesuak behar dituen balioen aurkakoak sustatzen ditu (gizarte zibila, bat egitea, ilusioa, militantzia...). Egia da Zapaterok zeken jokatu zuela su-etena administratzerakoan, itun antiterrorista tanta bat ere mugitu gabe eta beti iritzi publikoari begira. Baino mugimendu abertzalea itotzen duen estrategia itxi hori baztertu beharra dago.

Zapuztu zen elkarritzeta prozesua baliatu egin beharko litzateke, bi ondorio nagusi ateratzeko: lehena, behin-behikoa onartzea PSOEk, PPK bezala, ez duela sistema konstituzionala berrikusiko; eta bigarrena, dinamika armatuan amaiera eta gatazkaren konponbidea ezin direla garai berean etorri. Bi kontuetan pauso, subjektu, ibilbide eta kode desberdinak erabili behar dira.

ELAren ustez jarduera armatua behin betiko bertan behera uzteak ireniko lituzkeen aukera zibil eta politikoei begira jarri behar da.

**-EAeko Lehendakari Juan Jose Ibarretxeak urriaren 25erako errefrendum bat deituko duela ere adierazi du. Zein iritzi du ELAk Ibarretxeren iragarpenaz?**

-ELAk ez dio sinesgarri irizten proposamen horri, berarekin lotuta dagoen gobernu-kudeaketa arlo sozialean etsigarria baita, eta antidemokratikoa, izan ere joko-arauak zapuztu egin baitituzte sektore publikoko negoziazio kolektiboa eta esparru instituzionalean gutxien go sindikalekin elkar hartuta.

Gobernu honen balantzea autogobernuari dagokionez negargarria da: ez du jarrera tinkorik agertu berari eskualdatutako ahalmenak aldebakarreko berrikuspena gertatu denan; estatuari epe bat eman zion eta eskualdatu gabeko ahalmenak bere aldetik garatuko zituelako mehatxua bota zuen, gero horren kostua Kupotik kenduko zuela esanez, baina mehatxua ez zuen bete; edota iragarri arren, parlamentu-egoitzan onartutako estatuto politiko berriaren proposamenari buruzko konsulta ez zuen egin.

**-ELAk askotan salatu izan du Ibarretxeren hitzak eta ekintzak ez datoza bat.**

-Hala da. Autogobernuaren bilakae-

raren adibide dugu Hobetuzen inguruaren arturen gertatutakoa: Eusko Jaurlaritzak eskumena oso-osorik jasotzeko zeukan jarrera politiko historikoa baztertu eta gero gehiengo sindikal abertzalea ahaztu egin du. Gertakari honek adierazten du gobernu honen tentsio politiko gabezia, prestakuntza eredu eragingarria izateari uko egin izana eta euskal patronalaren eta espainiar sindikatuen alde diru-funtsak lortzeko egin diren tratuak; eredu honek lan-mundua duaren interesekin ez dauka zerikusirik.

ELAk oraindik kontsultaren alde egiten du. Areago, instituzioetan isla iza-nez gero prozesu subiranista bat sendoagoa izango dela uste du. Baino bisitan da hori galaraztearen edozertarako prest dagoen estatuari aurre egiteko lehendakariak ez dituela aliantza sozial eta politikoak indartu nahi. Aitzitik, eguneroko jardun politikoan argi utzen du aldaketa politikoaren aurkako jarre-rak tingoena duten empresa eta politika munduko sektoreekin ederk mol-datzen dela. Agintean dauden indar nazionalisten diskurso "subiranista" esatua rentzat erabilgarria da, horrekin elikatzen baitu erretorika patriotiko espanola, eguneroko politikan kudeaketa esparru konkretuak eztaba-datzen diren arren. Gure ustez, subiranismoa hauteskunde-lehiarako ikur huts ezin da gehiago izan, hots, zinezko politikarekin loturak ez duen zerbaita.

**-Egoera honetan, zer proposatzet du ELAk?**

-ELAren irudiko bi estrategiak, armatura eta neoestatutista-antisocialak, oso desberdinak izanagatik, esparru politikoan polarizazio antzura daramate, eta esparru sozialean, berriz, oinarri abertzale herrikoien desmobilizazioa. Horregatik uste dugu lehenbailehen iritsi behar dela nazio-prozesuari buruzko oinarrizko akordioetara.

Aurten beteko dira hamar urte Lizarra-Garazi Adierazpena kaleratu zenetik. ELA ziur dago orduko hura dela gaur gehiengoaren ilusioa piztu dezakeen muga estrategiko bakarra. Badakigu, gainera, indar subiranisten bat egitea, huts-hutsean zibila eta demokratikoa, dela estatuak indargez utzen dituen hipotesi bakarra. Espainiar eta frantses estatuak eraso egin zioten hipotesi honi duela hamar urte, eta hala gertatu da 2007an ere.

Hortxe dago PPK eta PSOEk zein erantzun gogorra eman dioten gobernu foralean indar euskaltzale batek parte hartzeko aukera zegoela aipatzehutsari. Era berekoak dira Iparraldeko mugimendu abertzaleari egiten dizkio-ten erasoak, mugimendu horrek indar politiko frantsesen oinarri sozialekin eta hautetsiekin ekimenak batera egiten dituelarik. Hipotesi zibil eta demokratikoa, gutxieneko oinarri batzutan finkatua, ez da soilik aukerarik hoherena; gehiago esan liteke, burujabetzantz eramango gaituen prozesu batik ekiteko bide bakarra da. Hau posible egin behar dugu.

**21 de marzo, Día Internacional contra el racismo y la xenofobia**

# "DISCRIMINACIÓN Y EXPLOTACIÓN SON ACTITUDES XENÓFOBAS"

Ante un nuevo 21 de marzo, fecha en la que se conmemora el Día Internacional contra el Racismo y la Xenofobia, la responsable del Área de Inmigración de ELA, Emérita Cuéllar, ha denunciado que la situación, lejos de mejorar, ha empeorado. "El discurso se enmascara sutilmente, pero no cambian las actitudes: hay más racismo y más xenofobia", ha asegurado, al tiempo que ha recordado que la "discriminación y la explotación laboral son actitudes xenófobas".

Según los datos que maneja Cuéllar, la mayoría de actitudes racistas y xenófobas se orientan a las personas extranjeras extra-comunitarias, y se producen en dos planos, principalmente: en el laboral y a través de las alocuciones políticas. "Sólo hay que prestar un poco de atención a los medios de comunicación y observar la realidad que nos rodea. Como dice el cantautor argentino Piero, las cosas se cuentan solas, solamente hay que saber mirar".

## ¿TRABAJADORES O ESCLAVOS?

El primer marco de racismo y xenofobia salta en numerosos escenarios laborales. Cada vez se conocen más casos de explotación, especialmente en los sectores más desprotegidos y precarios como construcción, servicio doméstico y hostelería, entre otros. El mismo día que se elaboraba esta información, era noticia la detención de un matrimonio de Durango por explotación laboral de inmigrantes. La pareja de hosteleros pagaba 600 euros al mes a 4 bolivianas, tres de ellas sin papeles, por jornadas de 11 horas. En los últimos seis meses han sido detenidos siete empresarios en Bizkaia por motivos similares. Evidentemente, estos casos son sólo la punta del iceberg de la situación que viven, día a día, miles de inmigrantes en todos los rincones de Euskal Herria.

Emérita Cuéllar ha denunciado que a día de hoy no existen datos reales sobre el número de personas explotadas. "Lo que sí se conoce es que a las personas inmigrantes sin documentos tras denunciar la explotación a la que son sometidas se les abre proceso de expulsión. Se castiga a las víctimas y se premia al culpable, al permitirle seguir explotando impunemente", ha criticado.

Todo lo anterior sucede a pesar de que la Ley de Extranjería contempla que se pueda conceder una autorización de residencia temporal por circunstancias excepcionales y por razones humanitarias a las personas víctimas de los delitos contra los derechos de los/as trabajadores/as. "Eso es así –ha asegurado Emérita Cuéllar– porque la Ley de Extranjería es confusa e injusta, pero también porque es permisiva, xenófoba y racista".

El resultado más inmediato de la aplicación de la Ley de Extranjería es que deja a miles de personas inmigrantes trabajadoras a merced del empresario, porque están sin papeles o con permisos condicionados al empleador. El prototipo son quienes tienen la

*"Diskriminazioa eta lan-esplotazioa ere jarrera xenofoboak dira"*

CONTRA EL RACISMO Y LA XENOFOBIA

"Gizarte diskriminaziorik ez, igualdad de derechos para tod@s"

Marcha de trintxerpe a Donostia Trintxerpetik-Donostiarra Ibilaldia  
MARTXOAREN 30ean

Irteera: 11.30etan Trintxerpeko azokan  
Amalera: 13etan Bulebarreko kioskoan

Ses Amazketa - Medicusmundi Gipuzcoa - Adiskideak - ADRA - ADRIS - África Directa - Andelur - ASOLEUS - Bidea Bat - Bulebarreko Tzupada - Behar Bilduera - Cartas - CEPA Zarautza - CITE-CCOO de Gipuzkoa - Confederación de ONG - Consejo de la Juventud de Euskadi - DECEBAL (Asociación Klimenda-Euskadi) - EHUAM - ELA - Eban Euskadi - Elkarretxeak - ESR - Esperanza Latina - FSC Euskal Herria - Fundación EMAUS - Gaudí Artxak - Tercera edad para el Tercer mundo - Humanice Fundazioa - Heldak - Iñaki Alzaga Solidaritate Taldea - Jatxox - Karmelitas Adíspers - Konika Internazionalistak - LAB sindikatua - Malet Etxea - Monos Unidos - Economistas sin Fronteras - Mugen Babé - Mugen Gainetik - Mundubat - Munduan Elkarlanean - Preatxamena Peñueña O - Parroquia de Larrabe - Plazandreak - SedePaz - SETEM Hegaztien Helzea - STEE-ELAS - TAU Fundazioa - Torre de Babel



## MARCHA CONTRA LA XENOFOBIA

ELA llama a participar a toda su militancia en la marcha que tendrá lugar el próximo 30 de marzo. La marcha, que partirá a las 11:30 horas, comenzará en Trintxerpe y concluirá en el Boulevard de Donostia.

primer tarjeta para trabajar, quienes vienen contratados desde su país de origen en figuras como cupo o contingente, trabajadores de temporada o prestaciones transnacionales de servicios.

"En gran parte –continúa la responsable de inmigración de ELA– estas figuras de contratación son la clara imagen de la esclavitud. Estas personas tienen la obligación de trabajar más pero el derecho de cobrar menos y, además, gozan del 'privilegio' de pagar impuestos, como cualquier otro ciudadano/a de aquí en plenitud de derechos", ha denunciado.

El segundo marco donde más claramente se aprecian actitudes de racismo y xenofobia en nuestra sociedad se deriva de los discursos y debates de las campañas políticas. Tal como ha denunciado Emérita Cuéllar, "se vincula el fenómeno de la inmigración a la delincuencia, la inseguridad ciudadana o la conflictividad social, y esto propicia en todos los ámbitos sociales actitudes racistas y xenófobas que, desde luego, no favorecen la convivencia." "Por otra parte, continúa, es también grave que no se reconozca como ciudadanos y ciudadanas de este país a las personas inmigrantes, al negárseles el derecho a la participación política, al no poder votar ni ser candidatos/as".

A partir de ahí, no resulta tan extraño que se produzcan situaciones o actuaciones claramente racistas, como la violenta detención de tres ciudadanos argelinos residentes en Gasteiz bajo la indefinida imputación de apoyo al islamismo para, a los pocos días, ser puestos en libertad. "La presunción de inocencia ha dado paso a la presunción de culpabilidad. Las personas inmigrantes son sospechosas por el mero hecho de su condición", ha denunciado esta sindicalista.

## DEROGACIÓN DE LA LEY DE EXTRANJERÍA

Para Emérita Cuéllar, los dos marcos de explotación laboral y negación de derechos políticos para las personas inmigrantes constituyen un panorama colmado de evidentes matices de racismo y xenofobia en el que la reivindicación debe ser la exigencia de un cambio radical de la actual Ley de Extranjería, así como el reclamar garantías y derechos para todas las personas quienes denuncian vulneraciones a sus derechos como es el laboral, paso fundamental para la integración social.

"ELA considera –concluye la responsable del Área de Inmigración– que la prioridad debe ser denunciar y actuar contra las discriminaciones y las injusticias, sin importar de dónde vengan, y para esto exigimos políticas sociolaborales realmente integradoras. Este 21 de marzo debemos hacer un alto en el camino y recordar el compromiso que tenemos con la humanidad, y dentro de ella, con la más desprotegida y vulnerada. Tenemos que protestar y luchar contra la intolerancia racista y la xenofobia, es decir la violencia social profunda que nos invade y deteriora las relaciones humanas".

*ELAk bat egiten du martxoaren 30ean xenofobiaren aurka Trintxerpe eta Donostia lotuko dituen martxarekin*



**ELA, LAB, UGT eta ESK sindikatuak deituta egun osoko greba egin zen martxoaren 6an Euskal Autonomia Erkidegoko osasun publiko zen- tro guztieta. ELAk Osakidetzan duen arduradun Nere Urrestarazu oso pozik dago mobilizazio denbora honetan langileek eman duten erantzunarekin. "Mobilizazioetara eraman gintuzten arazoak jarraitzen duten bitartean gatazka egongo da osasun publikoan".**

**-Martxoaren 6ko greba deialdia dela eta ELA gogor kritikatu du Jaurlaritzaren jarrera. Zein da egungo egoera?**

Jaurlaritzaren jarrera salatu beharrean gaude, mahai negoziatzailean izan duen estrategiak porrot

#### ● Emakumeen Eguneko elkarretaratzeak

Bizitza laborala, familiarra eta pertsonala bateragarri egitearen beharra. Hori da ELAk 2008ko martxoaren 8rako aukeratu zuen gaia. Arazoak milaka emakumeei eragiten die gurean. Emakumeak dira lan merkatuaren prekarietaea zein zerbitzu publikoen gabeziak gehien sufrizten dituztenak. Hego Euskal Herriko hiriburuetan ELA, ESK eta STEE-EILASek deitutako manifestazioetan ehunka pertsonak hartu zuten parte.

#### ● Protestas de la policía municipal

Varios cientos de policías municipales protagonizaron una manifestación el pasado 6 de marzo ante la sede de Eudel en Bilbao para exigir que el cambio de categoría de la actual "D" a la "C" lleve aparejado un incremento salarial. La medida afectaría a cerca de 3.500 agentes locales de la CAPV.

#### ● ELA rechaza la propuesta de Sepi en Babcock

Según ELA, cualquier solución en la empresa de bienes de equipo debe contemplar garantías para el futuro del empleo y la propuesta presentada por la Sepi para desbloquear el conflicto en Babcock no presenta avances en esta línea.

#### ● Mala oferta en Sidenor

ELA ha rechazado la propuesta de la dirección de Sidenor para cinco años que, entre otros aspectos, plantea una subida salarial del IPC y 275 euros no

egin duelako. Gaur egun Osakidetzak ez du inorekin akordiorik lortu, eta osasun publikoa hondatuta jarraitzen du; langileak hasarre daude, eta greba egunean argi utzi zuten berriz ere ez daudela ados bere planteamenduekin. Egun ziurra den gauza bakarra zera da: ez dira gai osasun publikoaren gatazka konpontzeko.

Galdera bat luzatu nahi diogu Inclan jaunari: non dago 'inork errefusatu ezingo duen' negoziazio eskaintza? Eskaintza hori ez da existitzen, ez guretzat ez atzean gelditu direnentzat; denok ikusten dugu eskaintza ez dela nahiko. Baino alde bat egon badago. Batzuk oso eskaintza eskasak ikusten ditugun tokian, sektorearen arazoen muinera heltzen ez diren proposamenak, beste batzuk hobekuntza nabarmenak eta negoziatzeko borondatea ikusten dute.

**-Hasieran greba deialdiarekin bat egin zuen arren, azken unean SAE deialditik kanpo gelditu zen.**

-Errealitatean sindikalgintza egiteko bi eredu daude aurrez aurre: batetik sindikalgintza korporatiboa eta osasun sistema publikoari zer gertatzen zaion axola ez zaiona, eta, bestetik, hori axola zaion sindikalgintza.

Jaurlaritzaren estrategia sindikalgintza korporatiboa edo sindikalgintza ahularen bidez batasun sindikala apurtzea izan da. Eta hori bai lortu du. Lortu ez dutena zera da: Medikuen Sindikatuarekin sinatutako akordioak jasotzen zituen diskriminazioak kentzea.

**-ELA batasun sindikalaren garrantzia azpimarratu du beti Osakidetzaren gatazkan.**

-Batasun sindikalaren zazpi puntuak indarrean jarraitzen dute: Medikuen Sindikatuarekin lortutako akordioan jasotzen ziren elementu pribatizatzaileak ez dira zuzendu, lan kargak lehengoak izaten jarraitzen dute, eta langile guztien egunerokotasuneko arazoak berdinak izaten jarraitzen dute. Osakidetzak borondateak erosten saiatu da petatxu baten bidez, eta oraindik ez dute lortu. Mobilizazioetara eraman gintuzten arazoak jarraitzen duten bitartean gatazka egongo da osasun publikoan.

**Osakidetza sigue teniendo una sanidad deteriorada: son incapaces de resolver el problema**

#### ● En recuerdo de las víctimas del 3 de Marzo en Gasteiz

Los sindicatos ELA, LAB, ESK y STEE-EILAS denunciaron las nuevas formas de explotación a los trabajadores en los actos que tuvieron lugar en Gasteiz el pasado 3 de marzo, en recuerdo de las cinco víctimas por disparos de la Policía hace 32 años.

#### ● ELA condena el atentado contra Isaías Carrasco

ELA ha condenado el atentado contra el ex concejal y militante del PSE-EE en Arrasate, Isaías Carrasco. ELA quiere trasladar su pesar a la familia de Isaías Carrasco, así como a los miembros de su partido. En opinión de ELA, este asesinato sólo contribuye a crear tensión en nuestra sociedad, y reitera una vez más su apuesta por las vías civiles y democráticas.

**NOTA:** El atentado se produjo el viernes 7 de marzo, justo cuando este Astekaria cerraba su edición.

**www.elasindikatua.org**

**ELA astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao  
Tel. 94 403 77 00  
Fax 94 403 77 66  
Dep. legal BI-199-00

**www.elasindikatua.org**

**Franqueo concertado  
nº 08/207**